

BILBO ETA BIZKAIA AURREZ AURRE:
Bizkaiko erakundetzearen berezitasunak XIX mendeko lehen erdian

JOSEBA AGIRREAZKUENAGA ZIGORRAGA

Behe ertaroan XIV mendean bilbao izeneko portu zaharreko bazterrean Bizkaiko Jaun agintariak hiri berri baten sorkuntza bultzatu zuen; ondoko mendetan, espazio gune horretan errotu ziren gizon emakumeak herrialde eta inguraldi zabal baten ardatz artikulatzailea bihurtuko zirela. Lehen momentutik kale paralelo hauetan beste helburu eta asmoz jabeturiko pertsonak bildu ziren eta beraien nahiak proiektuak eta egitasmoak hirietako espazio hauek, gizarte kutsu berriaren eragina isladatuko dute. Berez ohizko populakuntzan ez ohizko zerbait anomaloa zen hiriaren sorkuntza.

Historiolarien artean, sarritan kontrajarri dira lur zabala eta lur itxia, landa eta hiria, espazioak bizidunak balira moduan erakutsiz, fenomeno sozialen azalpenerako iturburuak bagenituzke bezala. Mintzatzeko era bat dugu alegia, baina lehen momentutik adierazi behar dugu espazio mota desberdinak sortuak direnez gero, gizakion arteko harremanen zein gatazken produktuak direla eta beraz ezin genitzake erabili kategoría independente bezala arazo jakin batzuen azalpenerako, populazioaren ekintza delako azken batean espazioaren dinamizatzailea eta sortzailea... Mota bat edo beste inguraldiak eta eraikuntzak bai molda edo balditza ditzakete jendoldearen portaerak baina ez erabat determinatu.

Kapitalismoaren sorreraren jatorriaz ari garenean, sarritan ezarri ohi da hirigintza, kapitalismoa eta aurrerapenaren arteko lotura eta parekotasuna. Beste batzuetan, lur zabala versus hiriaren egituraketa edo banakuntza, merkatuaren eta merkataritzaren oinarri oinarrian legokeela, esan da. Dena dela, produkzioaren hesparruak eta aldi berean besteak beste hiria laborarientzat kontsumo tokia bihurtu ziren heinean, edo eta goiherria-goi mendiak alde batean eta beterría-kostaldea bestean eginkizun desberdinen konplementoan, merkatuaren eta merkataritza sendoaren lehen aztarnak agiri zaizkigu. Eskoziako lurretan bezala, Euskal Herrikoetan ere bereiz daiteke esandakoaren hainbat adibidez' Salvatierra edo Lizarra-Estella hirien kokapena edo eta itsasbazterreko hiriena argi eta garbi frogatzen dute. Hala ere, Bilbo hiriaren kasuan, merkatal harreman internazionalen biltokia eta ardatza izan genuen gehien bat hasiera hasieratik.

(1) CARO BAROJA, J.: *Vasconiana (De historia y etnología)* Madrid, 1957, 107-108 orr.

Harrezkero, hiria eta hiritarrak, inguraldiko hesparruak bere merkatuaren dinamikara makurtzera saiatu ziren: Hiri zibilizazioaren zabalkundeak, eraginak eta merkatu librearen printzipioen nagusitza hirietako burgeseriaren indartzea eta kapitalismoaren garapena, *tempo* bereko fenomenoak izan ziren hemen eta Europako herrialdetan. Braudelen erizian, kapitalismoa eta hiriak, gauza berbera dira mendebaleko European. Hiriak bizi ahal izateko, gutxi edo asko inguraldi bat bere babespean eduki behar du, hau da eskualde, herrialde zein beste eremu zabalago batetan bere «inperio» propioa produzitzen saiatzen da, bere izatearen funtsa lortuko duenaren arabera egingo duelarik etorkizuneko bizimodua².

Baina garapen hau sarritan mugatua izaten da feudalismo garatuan; bazuetan hiria lur zabalean antolaturik eta finkaturik dauden jauntxoek kontrolpean gelditzen da; bestetan tirabira bizian. Baina une batean, inguruko lurrarekiko dependentzia etentzen hasten da eta garapen ekonomikoa azkartu, kapitalismoranzko igarobide prozesuaren bideratzean murgilduz. Historialari eta ekonomista liberalentzat hirietako burgesiaren dinamikan eta batipat merkatuaren bizkortasunean datza aldakuntza ororen giltzarria, ustez merkatua dela ekintza ekonomikoaren azken xedea, mundu merkatua merkatu txikien iustaposizioz atera eta sortu zelakoan. Baina gure ustez arazoa konplexuagoa da eta merkatua bera ere ondoren bat genuke. Produktzioa antolatzeko egituraketa sozialak, horrek bai duela benetako eragin sakona, merkatuetan gertatzen diren gora beherak besteak beste horien ondorio delarik³.

Igarobide prozesuko unean, inguraldiko lur zabalak, hiriaren eragipean sartzeko gehienetan, bestela hiriaren baserritartzearen arriskuan eroriko da. Sarrera luze hau bukatzeko, azpimarratu behar dugu azkenik, hiria autogobernu eta pribilegio ekonomikoen jabe ere badela eta barnean bizi duen askatasun indibidualen giroak, mendebaleko hiriei, halako berezitasun nabarmena eransten zien, munduan aurkitzen ziren hirigune era guztien baitan.

XV mendez geroztik Bilboren nagusitza ageri agerian atera zen. Bizkai-ko agintarien eta burokrazioaren egoitza Bilbon kokatu zelarik. Garai honean Bilbo eta bere inguraldia, mundu mailako gune ekonomiko garrantzitsuenaren ardatzaren erdian aurkitzen zen; hala ere zergatik Bilboren hazkunde demografikoa hain mugatua eta murrizta gertatu zen? Badakigu, jakin zenbakia ez dela guztia baina hala ere bere eragina du, nahiz eta European hiri gehienak demografikoki laburrak izan, baina hiri handiak ere moldatu ziren, Bilbo kokaturik zegoen ardatz ekonomikoan hain zuzen ere. Adibidez Amsterdam hiri haundi eta zabal gisa demografikoki indartu zen, etorkizuneko Holandaren, ezbairik gabeko, gidaria eta artikulatzailea. Bilbo aldiz hiri bezala zabalkunde horren ezaren ondorioz, zenbaki demografiko eta espazialaren murriztapena dela eta, XVII eta XVIII mendetan lur za-

(2) BRAUDEL, F. : *Civilización material y capitalismo*. Barcelona 1974, 382 orr.

(3) MERFINGTON, J.: *Ciudad y campo en la transición al capitalismo in Lu transición del feudalismo al capitalismo*. Rodney Hilton ed. Barcelona, 1978 2, 243-244 orr.

baleko laborantzak nekazal zibilizazio berriztatu eta sendo bati aurre egiteko, mugaturik aurkituko da. Hiriburu haundi legez mozturik estankatu moduan zegoen, ekonomikoki izugarritzko indar handia eduki arren. Dena dela, Bizkaiko hiria izaten jarraitzen zuen.

Hiri haundi ezaren fenomenoaren penintsulako iparralde guztian, Bordele-tik Coruña-ra agiri da. Horra bada, gure hirigintzaren ahulezia bat.

Bestalde hiriak, bereziki hiri haunditxoek, inguraldikoekin eten gabeko liskarretan Euskal Herriko beste eremuetan ere agiri zaizkigu: Baiona, eta Donostian adibidez.

Inguruetako herritako populua-ren ikuspegian, hirian gizartearen oreka naturala birrintzen zenaren ustea zabaldurik zegoen. Bertan, zaldun eta merkataria aberatsak bizimodu erosoaren jabe ziren bitartean, gorrotoaren sua matxinadetan biztutzen zenean, haien kontra zuzen zuzenean bideratzen ziren, egoera bizi-etu eta injustuaren eragintzat harturik zeudela. Lege zaharreko matxinadetan, Bilboko hirian bereziki egosten ziren lehen era-soak eta tirabirak.

1804.eko matxinadan, Zamakolada izenekoan, Bilbo hiriko buruzagi eta lur zabalekoe-n arteko proiektu desberdin eta kontrajarriak isladatuko zaizkigu, gerokoaren lehen aktoa balitz bezala. Horregatik interesgarria deritzogu, delako matxinadaz zerbait arakatzea.

1804.eko batzar nagusietan, Zamakolak egin zuen diskurtuaren irakurketaren ondoren konturatzen gara bai zer nolako tirabira bizi zuen Bizkaiko klase zuzendariek⁴.

Nekazal zibilizazioaren erroturik eta hegemonia soziala zutenek, Bilboko hiriak erre-presentatzen zuena (kontsulatua barne) igarriko zuten beraien etsai beldugarria bezala. XVIII mendean Bilboko merkatarien nagusitza Bizkaiko arazoetan gero eta nabarmenagoa zen. Bizkaia E.G. Humbolten eritzian lur jabedunen errepublika zen. Baina XVIII mendearen bigarren erdian merkataria-riak Diputadu nagusiaren postua hartzera heldu ziren⁵ Bilboko merkataritzaren premiak Jaurerrikoak balira bezala azaltzen ziren, baina hala ere, Bilbok Jaurerriaren barnean ez zuen lortu sozialki ez politikoki herrialde osoko buruzagitzaren legitimazioa, nahiz eta bertan arazo guztien giltzarria aurkitu. Behar bada salbuespen gisa aipatu beharko genuke Orduñako errepedegintzaren arazoa, Jaurerria Bilboko interesen arabera makurtu zelako⁶, errepedea Kontsulatua, Jaurerria eta Bilboren artean fi-nantziatuz.

(4) *Acuerdos de Juntas Generales de este M. N. y M. L. Señorío de Vizcaya*. Bilbao (Imp. Francisco San Martín) 1804, 24 orr. eta ondokoak.

VILLABASO C.: *La cuestión del puerto de la Paz y la Zamacolada*. Bilbao 1887

ECHEGARAY C.: *Aspectos jurídicos de la Zamacolada. Regimen y gobierno del puerto de la Paz*. Bilbao 1921.

(5) HUMBOLDT, G.: *Diario del viaje vasco 1801 in Guillermo de Humboldt y el País Vasco*. San Sebastián (Eusko Ikaskuntza) 1925, 80 orr.

(6) LARREA, M.A.: *Caminos de Vizcaya en la segunda mitad del siglo XV-XVIII*. Bilbao, 1974.

AGIRREAZKUENAGA J.: *Bizkaiko errepedegintza: 1818-1876*. Bilbao 1987.

Baina mende bukaeran Bilboko merkataritzaren ardatzak eta barrualdeko oletako burdingintzak eten gabeko beheraldian abiatuak zegoen: Bizkaiako ohizko egitura eta eredu ekonomikoaren zutabe bi, kilikolo jarri ziren eta beraz Bilbok ordezkatzan zituen seinuen gainbehera, hasita zegoen. Jasan ziren gudak, Ingalaterra eta Frantziaren aurkakoak, egoera areagotu zuten. 1794.eko batzar nagusietan, hiru erakunde komunitate nagusiak, gudak eralgitako gastuen ordainketarako zergen ezarpena erabaki zuten, elkarren arteko tirabirak nabariak zirela. 1792.eko batzar nagusietan jadanik, Bilbok bereganaturik zituen merkatal aberastasunak Bizkaiara zabaltzeko, Mundakako itsasadarrean beste portu bat sorturazteko projektua onartua izan zen. Bilbok lorturikoa beldurgarritzat harturik zegoen jadanik, eta batzuen ustez Bizkaiako mesedearen aurkakoa. Bilbo Bizkaia kontrajartzen hasten dira berriz ere indarrez.

Handik bederatzirteko urtetara 1801.an Bilboko itsasadarrean Mundakako projektuaren porrotaren ondorioz, beste portu berri baten asmoa onartu zen eta 1804.an Simon Bernardo Zamakolak honela ikusten zuen⁷:

«Porque si la pobreza del Señorío y la perjudicial abundancia de Bilbao nacida de haber hecho esta Villa exclusivo para si el Comercio de la Ría de Portugalete, era claro que destruyendo esta exclusiva se deshacía el germen de ambos males, y se proporcionaba el repartimiento de bienes que facilita esa feliz situación...»

Jaurerria zorpeturik aurkitzen zen garai honetan eta txirotasunean murgildurik. Bilbo aldiz abertastasanaren iturri. Hara bada Bilboren aurka neurriak hartzeko arrazoi sakon bat; bidenabar, azpi azpiko mezuan Jaurerriko egoera latzaren zergatia, Bilbori ere leporatzen dio:

«Tiempo era ya de sacudir ese yugo insoportable, tiempo era de abrir los ojos sobre nuestros intereses y de reintegrar al Señorío en sus tan apreciables como obscurecidos derechos».

Bilbok, nola edo hala lapurturiko eskubideak aipatu eta erreibindikatzen ditu eta jendearen borondatea erakartzeko, biktima moduan agertu Jaurerria, hots Bizkai osoko interesak. Kontrajartzen dira bada, Bizkai eta Bilboren arteko interesak, antagonikoak balira bezala. Etsaiak, Bizkaiako Jaurerria bestetik «dos Comunidades poderosas» izango dira, hau da Bilboko udala eta kontsulatua, merkatarien antolakunde sendoa.

Hauxe izango dugu, aurrerantzean XIX mendearen lehen erdian zabalduko den eritzi nagusi bat, erabat erroturik Bizkaiako jauntxo eta etxejoaun batzuen artean. Bestetik, Bilboko merkataria haundiak, haundiki batzuk, Bilbo eta Bizkaiarako aldakuntza politiko eta ekonomiko sakonaren alde jotzen hasiko dira. Bi projektu bultzatzen hasten dira azken batean, etorkizuna projektu bien artean sortuko delarik.

Aipaturiko erakundeok, tirabira hau urterik urtera nabariago agertuko dute, gizarte politikoa eta zibilaren antolakundeaz, egitura produktiboaren eraketaz projektu eta abiapuntu desberdinak azalduz joango dira.

(7) *Acuerdos de Juntas Generales*. 1804.

Krisialdi garai honetan Bilboren ohizko negozio ekonomikoaren oinarriak, hots bitarteko lana salerosketan eta inguraldiko burdin eta gainontzeko lantegien gainbeherak, laborarien zibilzazioaren berrindartzea ekarriko du eta bizimodua berriz ere baserritartu egin zen. Harrezkero nora ezean tokiak bilatzen liskarrak gero eta maizago. 1804.an bertan gudu zibilaren aurrean aurkitu zen Bizkaia, ondoko urteetan gertatu zirenen islada garbia.

BIZKAIKO ERAKUNDETZE POLITIKOA: **Komunitatetik nazioingintza gabeko estatu murriztura**

Bizkaia erresuma baten barruan aurkitzen zen eta XIX mendean, konstituzionalismoaren garaian bere nortasuna eta erresumaren baitan behar zuen txertaketa eten gabeko eztabaida bat izan zen, une guztietan agirian azaltzen zelarik. Aipatu dugu hiru erakunde nagusiak artikulatzen zutela Bizkaia: Bilboko udala, kontsulatua eta Diputazio Batzar Nagusiak. Baionako konstituzioan, Bizkaiko ordezkaria zen Yandiolak ohizko erakundeen nortasuna eta kompetentzi ahalmena irmoki defendatu zuen, ohizko foruak konstituzio kategoriarekin berdinduz. 1812.an Bilbon batzar nagusiak ez zuen onartu besterik gabe, salbuespenez baizik⁸.

Baina arazo hau gaurkoz alde batera uzten dugu, baina kontutan hartzea dugu. XIX mendeko lehen hamarkadan gertatu ziren guden eta liskarren ondorioz, Bizkaiko herriak eta Jaurerria, erabat zorpeturik atera ziren. Hau da, frantsesen administraziopean hainbat kontribuzio eskatu ziren eta haien aurka zenbiltzenak beste horrenbeste. Berehala behin behineko Diputazio berriak, arantzelak ezarri zituen aduana propioak alegia, diru iturriak hedatzeko asmotan. Jakina, merkatal produktuen gain eskatzen ziren arielak garestitu egiten zuten kontzuzmozko produktua eta merkataria sale-rosketa motelduten hasiko ote zen, beldur ziren. Berehala Bizkaiko erakunde bakoitzaren ahalmenak zeintzuk ziren eztabaidatzen sartu ziren, Kontsulatuak adierazten bait zuen aranzelen ezarpena bere kontukoa zela eta. Azkenean, 1814.eko batzar nagusiak, Kontsulatuak, inportatzen ziren produktuen gain kobratzen zuen «abestia» delakoa, % 1tik %. 2.ra igotzea erabaki zuen. Azken batez, modu honetan, Jaurerriko diru sarrerak, kontsumitzen ziren produktuen gain ezarritako arielen bidez, hau da zerga ez zuzenen bidez lortzen zen, lur jabetzak ea ezer ez zuela ordaintzen. Bilboko ordezkariak protestatu egin zuten, Bilboko hiria eta inguraldiko elixaldeak bait ziren % 50.eko diru sarrera eransten zutenek, zerga ez zuzenen bidez alegia Bilbo inguruko espazioan konzentratzen baitzen populazio gune garrantzitsuena, baina hala ere Bilbok Batzar Nagusietan boto bat baino ez zuen. Jakina, Bilboren protesta ezerezean gelditu zen berriz ere eta handik lasterrena, erregearen aurrean harturiko erabakia errekurritu egin zuen⁹.

(8) Kortasetako artxiboa Madrillen: L. 18-27, L. 19-4.

(9) *Acuerdos de Juntas Generales* 1815, Bizkaiko Jaurerriko Artxibo Nagusia, Kontsulatua, 2 errg.

Tira bira bortitza azaldu zen baina Bilboko alkate zenak, Manuel Aldekoak, 1814.an Jaurerriko Diputaduei ulertzeko bide bat sortu behar zela adierazi zien eta azkenean 1815.an Konkordia bat Jaurerria, Bilboko Udala eta Kontsulatuak sinatu zuten.

Bizkaiko sistema fiskal modernoaren sorrera burutu zuten. Sinatu aurretik eztabaida luzea zeren sektore sozial bakoitzak berea defendatzen zuen eta.

Laburbilduz, zorra kitatzeko lehentasunak argitzen dira, hau da zeintzuk zor lehendabizi ordaindu.

Diru sarrerak lortzeko, ardoa, gatza eta esportzen zen gaztainaren gain zergak inposatzen ziren baina bestalde Jaurerriko herriak ere lur jabetzaren lepotik edo, 150.000 erreal, kontsulatuaren gain jartzen zen zazpigarren parte ezik, ordaindu beharko zuten aurrerantzean. Dena dela, herri bakoitzak askatasuna zuen bere kuota ornitzeko, zerga zuzen edo ez zuzenen bidez, dirua ateratzea. Baina aipagarria da, azkenean, Bilboko eta merkatarien ordezkariak lortu zutela, sistema fiskala kontsumozko produktuen gain soil soil ez ezartzea.

Zehazki irakurri ezkerro atal guztiak konturatuko gara akordioak Jaurerriaren nagusitzarako oinarri sendoak errotu zirela. Harrezkero Diputazioaren indarra finantza publikoen arloan eta hegemonia politiko soziala hesparru guztietan nabarmentzen hasiko da eta guda zibila bukatu ondoren 1839.an hain zuzen ere, Bizkaiko erakunde publiko nagusia bihurturik egongo da. Mende hasierako hiru komunitateen arteko botere parekotasuna, herrialde edo lur zabaleko erakudearen alde irten zen. Komunitatetari-ko baten inguruan Estatu forma bat sendotu zen, naziogintza liberalaren eraginez ea apenas kutsaturik, naziogintza beharbada Espainia mailan planteatu zelako.

Hamaikagarren artikulua adierazgarria dugu Jaurerriaren nagusitasun erakusteko¹⁰.

«El Señorío tendrá facultad de suspender todos o cualesquiera de los arbitrios impuestos en el artículo quinto como también de reestablecerlos según le parezca conveniente para ocurrir a sus obligaciones en cuyo caso se hará este restablecimiento por el orden inverso a que se hayan suspendido sin establecer otros nuevos sino en el caso y modo que se expresará en el artículo siguiente».

Hara bada, argigarria dugu norena den Bizkaian botere nagusia. Urrengo urteetan eta bereziki 1820-1823.eko garai liberala igaro ondoren, Bilbo eta gainontzeko jaurerriaren artean, lehenagoko diferentziak ideologi eta politika ekintzabidez gogortu egin ziren. Liberalismoaren proiektuak tinko errotu zen Bilboko merkatarien artean bereziki; 1820.eko Batzar Nagusietan Konstituzioa besterik gabe onartzeko ahaleginak egin zituzten, bai-

(10) Acuerdos de Juntas Generales extraordinarias 1815.

AGIRREAZKUENAGA J.: *Vizcaya en el siglo XIX: Las finanzas públicas de un Estado emergente. Bilbao 1987.*

na gehiengoak mesfidatzaz hartzen zuen Konstituzioa ohizko erakundetzearen deusestapena erakartzen bait zuen.

1823.an absolutismoa berriz nagusitu zenean, ohizko erakundeak ezarri ziren bere indarrean. Baina aurrerantzean, dena izango zen desberdina. Liberalak ez dute sarrerarik izango Batzar Naguietan eta Diputazioak bere ardurapean polizia politiko bat antolatu zuen.

Kontsulatuko hauteskundera liberal zaleak aurkezten zirela eta Diputazioak iskanbila sortu zuen, ezin zuen eta, onartu Kontsulatua liberalen esku gelditzerik¹¹.

Azken batean, tradizionalista-errealisten geroko karlistak alegia, gobernu inoiz ez bezalako intolerantea egin zen. Garai honetan Diputazioak izugarrizko beterea irabazi zuen ahalik eta konpetentzi gehien bereganatuz, Estadu berri bati dagokion indar ahalmena erakutsiz. Bilboko liberalak errepresio gogorra jasan zuten, absolutismo eta foruen izenean. Gorrotoak areagotu egin ziren. Gizarte tradizionalistak gizartearen antolakunde politikorako, ikuspegi zaharkituak indarrean autoritarismoz eta indarrez estadu sistema berri bat sendotu zuen naziogintza modernoak eskatzen zituen abiapuntuetan oinarritu gabe. Laburbilduz, tirabira guztien ostean, Bilbok eta bere itsasadarra ekonomikoki XIX mendearen lehen erdian, beherakada nabarmena eta birregituratzea ezagutu zuten garaian, bertako sektore sozial dinamikoenak Bizkaiko gidaritzza egiteko gaitasuna galdu egin zuten eta bitartean lur zabaleko haundikiak, gehienetan hirietan bizi arren bere hegemonia soziala eta politikoa nagusitu eragin zuten, Diputazioko erakundea sendotuz eta ea burujabetasun osoz jokatzeko ekintzabidea ezarri zutelarik. Garai honetan, hain zuzen ere, Diputazioak, Kontsulatu eta Bilboko udalari hegemonia sozial eta politikoa irabazi egin zien, harrezkero Bizkaiko integrazioa, erresuma konstituzionalean berezia izango zelarik.

1986. eko abenduaren irakurria.

(11) Artxibo historiko nazionala Madrillen Kontseiluak, 3702 36 zenbakia BARAHONA, R.: *The making of carlism in Vizcaya (1814-1833)* Michigan (University microfilms international) 1983.